

Alderdi teknokrataren mugimendu kalkulatuak

**Xabier Mikel
Errekondo**

PNV SA, kudeaketa bera helburu, botere guneak bereganatzea, baliabideak bere nahierara bideratzeko elkarte anonimoa. Xedea irabaziak, bidea botere gune publikoen kontrola eta kudeaketa. Profesional bihozgabeak, guztiona “familiako” *holding* elkarte anonimoen artean banatzen maisuak. Batek bestea elikatu elkar elikatzeko. Zilborres-tea.

Gas eskittoa eta petrolioaren ikerketa, prospekzio, azterketa zein ustiaketarako fracking teknologiaren kontra agertu da berriki Madrilen oposizioko alderdi guztiekin batera. Praktikan, ordea, legegintzaldiaren amaiera arteko moratoria eskatu dute. Ekaina arte? Iraingarria. Mugimendu kalkulatuak, jakitun Legebil-

tzarrerako hauteskundeei begira higadura iturri zaiela. Gero gerokoak. Denboraren haizeak hitz larriak ere higatu eta hondar bilakatuko baititu.

Zubietako erraustegi toxikoarentzat sei urteko moratoria eskatu zuten Usurbilgo Itunetik hamasei alderdi, sindikatu eta eragilek. Hondakinen kudeaketa osoa eztabaidatu eta erabaki zedin, amankomunean eta behar beste denboran. Ukoa erantzuna. Gipuzkoako Aldundirako hauteskundeak galdu ostean, ordea, sei hilabeteko moratoria onartu zuen PNVk. EH Bildu antzu baten aurrean mugimendu kalkulatuak, 2015ean berreskuratu baitzuen boterea. Azeri zahar aseezinak badaki bere unea itxaroten. Bitartean, hondakinen inguruan sua piztu eta giroa gori-gori jartze-

raino hauspotu zuen, EH Bildu izututa joko zelaitik erretiratzearaino. Erraustegiari aurre egin diezaiokeen bilketa sistema bakarrari, atez atekoari, eraso etengabea darrai. Galdeketen abanderatua bilakatua, alajaina! Baina behar besteko informaziorik eta eztabaidarik gabeko galdeketa, galdeketa itsua da. Nahasmendu itsustuaren erdian ariketa maltzurra. Amarrua. Mugimendu kalkulatuak.

EH Bildu eta Podemos aurka izanik, PNV jakitun da 2019 arteko epea duela erraustegia atzera ezina egingo duten erabakiak hartzeko. Eta hartu egingo ditu. Berari bost osasuna eta minbiziak! Enpresekin bat elkar elikatzen jarraitu nahi du. Kalkulatuak du mugimendua, erraustegiarekiko inolaz ere ez du galdeketa onartuko. •

Berriz, berriz...

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Berriz, berriz, dio umeak, kantatu abestia berriz. Berriz altxatu zara ohatzetik, ezkerraldetik, eskuinaldetik edo aitzinetik. Berriz jantzi dituzu galtzerdiak eta zapatilak. Egun batean, zergatik jakin gabe, buruak erreferentziatzat hartu zuen puntua ere, lanera sartzean, portalean –erranez «oporretatik bueltan hemen izanen naiz»– hor dago berriz. Heldu den urtean, eta hurrengoan eta hurrengoan...

Egunero ez, baina tarteka oroitzen zara behinola erreferentziatzat hartu zenuenaz eta momentu batez begira gelditzen zara. Ez du zentzu handirik, ez dakizu zehazki ze puntu den ere, hor dago nonbait, igo-

gailuaren ertzean, baina balio dizu ez zorionez lanean segitzen duzula frogatzeko bakarrik, baita denborak eta zikloak irudikatze ere.

Berriz, berriz, kontatu ipuina berriz. Munduan dena errepikatzen da eta, hain zuzen, deus ez da berdina. Goiza, arratsaldea eta gaua. Elenari (Karmele Jaioren “Musika airean” nobelako protagonista) hodei zuri geldiak, kafesnea eta argia gustatzen zaizkio, eta isiltasuna ere bai. Baina egunekoak, ez gauekoak. Berarentzat, egunak denonak dira, eta, gauak, aldiz, norberarenak. Norberak egin behar die aurre. Berak lehenbailehen lokartu nahi izaten du, maindireak harritzakoak bihurtzen zaizkiolako

ilunpetan eta oroimenaren zama guzia gainera erortzen sentitzen duelako.

Eguna haur jaioberria da, bere inozentzia eta deskubritzeko gogo guztiarekin. Arratsaldeak oroitzapenen pisua darama eta gauak jada ez du barkamenik. Hala deskribatzen du Elena adineko emakumeak zikloa, salako leihotik munduari so egiten dituen gogoetetan.

Errepikatzen diren errepikaezinak. Berdinak diruditen desberdinak. Berriz, berriz... Uste dut hori izan daitekeela bizitzak bere bidean uzten duen musika. Elenak dioen bezala, soka kanta baten denboran pasatzen da. Hortaz, ahal dugun guztia gozatzea dagokigu. •